

IRAULTZA BERA (BERAZATEGI-DOMINGUEZ) 1936'KO GUDA EUSKADI'N

Etorri zan, azkenean etortekoa zan gudea, alde batetik monarkikoak, karlistak eta falanjistak eta bestetik España'ko ezkerriak eta euskal abertzaleak.

Iñok ez eban uste ain luzea ta odoltsua izango zanik, sortzen zan guda.

Atzeratu ete eikean guda egiteko erabagi ori?

Bai España'n agintari on bat izan bat izan ba'litz. Erkalak orretarako alegin gitxi egin eban.

Franco jagi zan aurka, baiña ez urrengo egunean. Militarrik erdiak, eta oneikaz Franco, matxinadaren aurka egozan. Baiña Euskadi'n eta Nafarroa'n Mola'gaz, erkalaren alde jarri ziran. Batxokiak falanjisten etxe biurtu ziran sarritan, esaterako Uarte Arakil'en.

Nafarroa'n eta Araba'n naikoa ondo artu zan matxinada. Araba'n be izan ziran matxinoak, Donostia'n be bai, baiña ez ziran erkalalaren lagunak, iraultza batenak baiño. Laster isildu ebanzan geiengoak. Matxinoen aurka gogor jokatu zan Nafarroa'n (3.000 erail ebezan) erreketear militarrek (eskertiarrak eta bertzaleak ziran eraillak) eta Araba'n antzera.

EAJ araudia lortu-naian ebillan igaroak ziran bost urteetan. Ederto dakar urte onein edestia Jose Antonio Agirre'n «Entre la revolución y la guerra» bere liburuan).

Bere edestian EAJ/PNV'k artu dauan erabagirik aundiena, erkalalaren alde gudara sartzea izan zan. Jakiñak dira gure aldun euskaldunak Erroma'n kontzientziko arazo lez ori aurkeztu ebenean, artu eben erantzun maltzurra: «Moral aldetik ondo zoaze, baiña galdu egingo dozue».



Otxandio-Legutiano: gudariak gertaketan.

Gai orreri buruz Juan Ajuriagerra'k au diño: Erabagia artu zan baiña ez poz aundiagaz. Bardin laterriak be Araudia emon eban baiña ez poz aundiagaz.

Ori zan bakarra euskaldunak ez etozala batera matxiñoakaz, agertzeko, baiña agertu eben ezkertiarrek be ez etozala baterea, erlejiñoaren aurka ekiten eta eleizak erreten asi ziranean.

Beste arazo bat agertu jaken abertzaleai: Mujika euren gotzaiñak eta Iruña'koa zan Olae-txea'tar Martzeliño bizkaitarrak debekatu egin eben ezkertiarrekaz alkartzeko. Zelan ori? Goma kardinalak eta militarrek alkartuta eragin eutseelako. Geroago jakin zan ori Mujika'k «Imperativos de mi conciencia» agiria zabaldu ebanean.

Dana dala, eskertiakaz alkartzeko ori izenpetu baiño lenago eztabaida gogorrek izan ziran eta batzuk iges egin eben EAJ/PNV'tik. Txarrago oraindiño artu eben aurka erabagia artuta egozan Nafarroa ta Araba'ko abertzaleak. Esaterako Nafarroa'n Manuel Aran-

zadi eta onen etxeokaz matxinoen alde jarri ziran eta beste batzuk abertzaleak itzi eta erreketetara joan ziran. Gipuzkoa'n Jose Artetxe idazle ospetsua alkartzearen aurka agertu zan, erreketen alde. Bizkaia'n gitxi batzuk izan ezik onartu eben alkartzeko ori, baiña ori nai ez ebenean artean Arana Goiri'tar Sabin'en Luis anaia egoan. Onek ez eban nai espantarrakaz olako artu-emonik eta «neutral» geratzea eskatzen eban. «Accion Nacionalista» ta «Jagi-Jagi»ko mendigoizaleak matxinoen aurka agertu ziran. Oneik Euskadi askatzea nai eben, baiña ez eben onartzen Araudia. Orretan Agirre ta Irujo'ren aurka egozan.

Olazar'tar Martin'ek